



EBAZPENA, 2025eko EKAINAREN 25koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHU-KO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEK (IRI) 2025/2026 IKASTURTEAN ERASMUS+ PROGRAMAN IRAKASKUNTZA HELBURUAK DITUZTEN EGONALDIAK EGITEKO OINARRIAK ONARTZEN DITUENA

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu Erasmus+ programan dirulaguntzak banatzeko modua eta irakaskuntza helburuak dituzten egonaldiak egiteko baldintzak, aintzat harturik Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Kontuan izanik kreditua badagoela, Erasmus+ KA131 2024 proiektuari loturiko dirulaguntza kontratuko Europako funtsetatik, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Onartzea eta argitaratzea UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat irakaskuntza helburuak dituen Erasmus+ mugikortasun deialdiaren oinarriak.

Bigarrena: Adjudikatuko diren plazen kopurua aurrekontuaren araberakoa izango da.



OINARRIAK:

1. DEIALDIAREN XEDEA	3
2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	4
2.1. Irakasleak	4
2.2. Irakaskuntza	4
2.3. Egonaldiaren iraupena	5
2.4 Egonaldiaren datak eta aldiak.....	5
2.5. Helmugak.....	6
3. FINANTZIAKETA	7
3.1. Finantzaketa Europako erkidegoko funtsen bidez	7
3.2. Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren laguntza osagarria	8
4. ESKAERA EGITEKO MODUA.....	9
4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.....	9
4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.....	9
4.3. Eskaera zuzentzea eta hobetzea	10
5. HAUTAPEN PROZEDURA.....	11
5.1 Ebaluazio eta hautaketa-irizpideak.....	11
5.2 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda.....	12
6. PARTE HARTZEKO KONPROMISUAK	12
6.1. Egonaldiaren aurretik.....	12
6.2. Egonaldiaren ondoren	13
7. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.....	13
8. ALDAKETAK ETA UKO EGITEA.....	14
8.1 Aldaketak onartutako mugikortasun-baldintzetan	14
8.2 Uko egitea.....	14
9. MUGIKORTASUNAREN ONARPENA	15
10. EZ-BETETZEAK ETA ITZULKETAK.....	15
11. ERREKURTSOAK.....	15
ERANSKINEN ZERRENDA	17



1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea dirulaguntzak ematea da UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei 2025/26 ikasturtean Erasmus+ programari atxikitako goi mailako hezkuntzako erakundeetan irakasteko.

Egitasmo hau bat dator irakasleen mugikortasun deialdiarekin, zeinaren helburua den irakastea Erasmus aldebiko akordioa sinatu den Europako beste unibertsitate batean, nahiz eta prestakuntza jarduerekin konbinatu daitekeen eta beste jarduera batzuk ere egin daitezkeen.

Egonaldian eginiko irakaskuntza lanak ikasketa programa baten parte izan behar du, harrera erakundeko graduako edo graduondoko titulu ofizial baten ikasketa programa, eta bi erakundeen artean hitzartutako Mugikortasun Akordio batean (Mobility Agreement) jasoko da.

Egitasmoaren helburuak dira:

Aukera ematea UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei garapen profesional eta pertsonalerako

Irakaskuntza metodologiaren gaineko esperientzien eta berrikuntzen trukea sustatzea

Unibertsitateei laguntzea eskaintzen dituzten ikasketen irismena eta edukia zabaltzen eta aberasten

Hizkuntza trebetasuna hobetzea hirugarren hizkuntza batean

Aukera ematea mugikortasun jardueretan parte hartu ezin duten harrera unibertsitateetako ikasleei beste herrialde batzuetako irakaskuntza ezagutzeko eskuratzeko

Irakaskuntza helburua duen atzerriko egonaldi batek konbinatu ditzake irakaskuntza eta prestakuntza jarduerak. Konbinazio horrek aukera ematen die goi mailako hezkuntzako erakunde bateko irakasle-ikertzaileei atzerrian prestakuntza jarduera batean parte hartzeko, egokia izango dena beren eguneroko lanerako. Izan daitezke prestakuntza ekitaldiak (konferentziak, batzarrak edo beste edozein ekitaldi orokor izan ezik), nazioarteko asteak (Erasmus+ Staff Weeks) edo behaketa bidezko ikaskuntza. IRlek ekintza horretan prestakuntza jaso dezaketen bezala, irakasleen mugikortasunaren barruan goi-mailako hezkuntza-erakunde elkartua garatzeko prestakuntza ematea ere sar daiteke.

GARRANTZITSUA: Ekintza honen helburua da **IRAKASKUNTZA** ematea, **PRESTAKUNTZA** jarduerekin konbinatzeko aukerarekin. Erasmus+ ekintza honen esparruan, **ikerketa** jarduerak ez dira onargarriak, eta ez dute justifikatzen egonaldiaren interesa, ezta helmugan burututako jarduerak ere. **Aldiz, irakaskuntza jarduerak, edo ikerketarako irakaskuntza- eta prestakuntza-jarduera konbinatuak onargarriak dira.**



2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1. Irakasleak

- Eskatzaileak eduki beharko du Erasmus+ programan parte hartzen duen herrialderen bateko nazionalitatea edo beste herrialde batekoa (kasu horretan, egiaztatu egin beharko du baduela Espainian bizitzeko baimena mugikortasunak iraun bitartean).
- Zerbitzu harreman bat izan beharko du UPV/EHUrekin edo unibertsitate horri atxikitako zentro batekin, dela funtzionario moduan dela lan kontratudun moduan, eta zerbitzu aktiboan egon beharko du, bai eskaera egiteko unean bai egonaldia egitean.
- Halaber, kasu hauetan modu orokorrean eskatu ohi den desplazamendu lizentzia eduki beharko du.
- Jatorri eta harrera erakundeek sinatu egingo dute interesdunak egonaldia egin aurretik aurkeztuko duen irakaskuntza programa (**Mobility Agreement 3. eranskina**).
- Gutxienez B1 maila egiaztatu beharko du **atzerriko** hizkuntza batean ¹.
- Harrera unibertsitateak maila handiago bat eskatu ahal izango du hizkuntza zehatz batean (**1. eranskina**). Horrela izanez gero, eskatzaileak akreditazio hori aurkeztu beharko du.
- Irakaskuntza helburua duen Erasmus+ mugikortasuna oinarritzen da erakunde parte hartzaileen arteko aldebiko akordioetan. EZ BADAGO aldebiko akordiorik bi unibertsitateen artean dagokion Behin betiko Ebaspenaren AURRETIK, ezin izango da mugikortasuna egin.

Irakaskuntza helburua duen mugikortasuna soilik egin ahal izango da Erasmus+ Unibertsitate Gutuna duen unibertsitate edo goi mailako hezkuntza erakunde batera, irakasle-ikertzaileak trukatzeko akordioa duena eskatzailearen UPV/EHUko ikastegiarekin, sinatua eta indarrean 2025/26 ikasturterako.

2.2. Irakaskuntza

Asteazortzi eskola ordu eman beharko dira gutxienez (baita egonaldia bost egunetik beherakoa denean ere), harrera ikastegian titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketa programaren parte diren irakasgaietan.

Mugikortasunak astebete baino gehiago irauten badu, aldi horretan eman beharreko gutxieneko ordu-kopurua *aste osoko orduen / asteko egunen (5) arteko* erlazioaren proportzionala izango da.

¹ CRUEren Egiaztatze Batzordeak eta ACLES elkarteak onatzen emandako ziurtagiriak onartuko dira (ikus ondorengo esteka), baita UPV/EHUko irakasleek hizkuntza ez-ofizialean irakasteko gaitasuna egiaztatzen duen hizkuntza ziurtagiria ere: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa/>
<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleoniztasun-plana-probak>



Irakaskuntza jarduera konbinatzen denean prestakuntza jarduera batekin, 4 ordura murriztuko dira asteko (edo edozein egonaldi laburragoko) gutxieneko irakaskuntza orduak.

2.3. Egondialdiaren iraupena

Egonaldia egingo da interesdunari plaza esleituko dion **behin betiko erabakia argitaratu ondoren**, eta **2026eko uztailaren 19a** baino lehen amaituko da.

Oro har, egondialdiaren iraupena bi (2) eta bost (5) egun baliodun artekoa izango da, bidaiak egunak alde batera utzirik. Salbuespen gisa, Hautaketa Batzordeak hamabi (12) eguneko egonaldia finantzatu ahal izango du, bidaiak alde batera utzirik, kasu hauetan: (i) eskatzaileak bi asteko ikastaro labur bat ematen badu (gutxienez 16 irakaskuntza-ordu) edo (ii) eskatzaileak irakaskuntza-egonaldia eta Staff Week batean parte hartzeko prestakuntza-jarduera konbinatzen baditu.

2.4 Egondialdiaren datak eta aldiak

Mugikortasunak egiteko hiru (3) ebazpen argitaratuko dira 2025/2026 ikasturtean. Ebazpen horietako bakoitzak eskaera-epe bat eta mugikortasuna egiteko data bat ditu. Behin-behineko ebazpen bakoitza argitaratu eta 10 egun balioduneko epean argitaratuko da behin betiko ebazpen bakoitza, eta hortik aurrera egin ahal izango da mugikortasuna.

Mugikortasunak jarraian deskribatutako daten arabera planifikatu beharko dira:

Behin-behineko Ebazpenak	Eskaera bidaltzeko azken eguna	Behin- behineko ebazpenare n data	Mugikortasun a hasiera data	Mugikortasun a azken hasiera data
1.Behin-behineko Ebazpena	2025/07/08	2025/07/15	2025/09/01	2025/11/09
2.Behin-behineko Ebazpena	2025/10/01	2025/10/10	2025/11/05	2026/03/08
3.Behin-behineko Ebazpena	2026/02/01	2026/02/10	2026/03/09	2026/07/19

Data horietan bi salbuespen daude, eta, beraz, ezohiko ebazpenak argitaratuko dira:

1. Mugikortasun bat ez badator bat taulan adierazitako ebazpen arrunten egutegiarekin, baina Nazioarteko Harremanen Bulegoak onartzen badu, **UPV/EHUrentzat interes estrategikokoa** dela iritzita, salbuespen gisa, mugikortasun hori taulako egutegitik kanpo eskatu eta egin ahal izango da. Honako hauek hartuko dira interes estrategikoko mugikortasuntzat: "Enlight" Europako Aliantza osatzen duten unibertsitateetan egiteko proposamenak eta Programa Intentsibo Konbinatu (BIP) batean irakaskuntza-jarduera bat egiteko mugikortasunak. Egutegi arruntean sartzea ezinezkoa dela behar bezala justifikatu beharko da. Nolanahi ere, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak erabakiko du mugikortasun hori onartzen den ala ez, eta Ebazpen honek mugikortasun guztietarako ezartzen dituen baldintza eta konpromiso berberak bete beharko dira.



2. Taulan aurreikusitako azken ebazpenaren ondoren deialdi honetarako funtsak agortu ez badira, Ezohiko Ebazpen bat argitaratuko da eskatutako mugikortasun berrietarako, betiere deialdi honetan adierazitako mugikortasunak eskatzeko eta baliatzeko epemugak errespetatuz (2.4 eta 4.2 puntuak).

Hasiera/amaiera-datei eta bidaia-datei buruzko oharra

Garrantzitsua da eskatzaileak bi datak bereiztea:

- **Hasiera-data** irakaskuntza-jarduera hasten den lehen eguna, eta **amaiera-data**, berriz, parte-hartzaileak harrera-erakundean jarduera bukatzen duen azken eguna. Data horiek agertu behar dira eskatzaileak bidali beharreko dokumentuetan (**Eskaera-inprimakia eta Mobility Agreement**).
- Bidaia-datak aurrerago adieraziko dira, mugikortasuna onartu ondoren ([puntu 6.1](#)), eta jarduera-datak ez bezalakoak izan daitezke.

2.5. Helmugak

Deialdi honen 1. eranskinean, ebazpen hau onartu den unean UPV/EHUrekin irakaskuntzarako mugikortasun-hitzarmenak sinatuta eta erregistratuta dituzten erakundeak agertzen dira. Hitzarmen bakoitzean, zer unibertsitate-zentroekin sinatuta dagoen eta plaza bakoitzean zer baldintza bete behar diren agertzen da. Hala ere, edozein zalantza izanez gero, zentro bakoitzeko nazioarteko harremanen koordinatzailearekin hitzarmen aktiboak kontsultatzea gomendatzen da.

Kasu bereziak:

- UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek **1. eranskinean jasota ez dagoen beste helmuga bat aukeratzen badute**, interesduna bere ikastegiaren Nazioarteko Harremanen koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko da, helmuga horretarako hitzarmen berri bat sinatzeko interesa balora dezan
 - Ikastegiak interesa badu: Nazioarteko harremanetarako koordinatzaileak parte-hartzailearen **eskabide-orria (2. eranskina)** sinatu beharko du, eskabideak aurkezteko epearen barruan, eta, horrela, hitzarmena sinatzeko prozedura hasiko dela egiaztatuko du. Akordio berriak sinatuta eta erregistratuta egon beharko du Erasmus Without Papers plataforman, eskatutako mugikortasunari buruzko behin betiko ebazpena argitaratu baino lehen, edo ezin izango da egin.
 - Ikastegiak **interesik ez badu**: ez dute Eskaera-inprimakia sinatu beharko (**2. eranskina**), eta ezingo da izapidetu mugikortasun-eskaera
- UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek aukeratzen badute **1. eranskinean jasotako helmuga bat eta helmuga hori ez badagokio haien ikastegiari**, eskaera orrian (2. Eranskina) adierazi beharko du eta Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak galdetuko dio hitzarmena sinatu duen ikastegiari ea onartzen



duen ala ez beste ikastegi bati atxikitako irakasleak erabiltzea hitzarmen hori. Hitzarmena sinatu duen ikastetxeak askatasunez onartu ahal izango du, edo ez, bere ikastetxeari atxikita ez dagoen irakasle batek bere hitzarmena erabiltzea.

3. FINANTZIAKETA

3.1. Finantzaketa Europako erkidegoko funtsen bidez

Deialdi honetako dirulaguntzak kalkulatu dira kontuan harturik SEPIEk adierazitako finantzaketa arauak. Deialdiaren baldintzen eta hautaketa-ebazpenetan argitaratutako artean kontraesanak badaude, deialdikoak gailenduko dira.

Egonaldia egingo duten langileek Europako dirulaguntza bat jasoko dute bidaia gastuetarako eta egonaldiko mantenu gastuetarako. Laguntza bi kontzeptutan banatzen da:

- a) **Bidaia gastuetarako laguntza** diru kopuru jakin bat da, eta lantokiaren eta dagokion jardura egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera kalkulatu da, EACEAk horretarako sortutako tresna informatikoaren bidez: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator>

Bidaiaren distantzia	Kopurua (parte hartzaileko)	Bidaia ekologikoa*
10-99 km	28€	56€
100-499 km	211€	285€
500-1.999 km	309€	417€
2.000-2.999 km	395€	535€
3.000-3.999 km	580€	785€
4.000-7.999 km	1188€	1188€
8.000km edo gehiago	1.735€	1735€

* Bidaia ekologikoa da ibilbidearen zati nagusian emisio txikiko garraiobideak erabiltzen dituen, hala nola autobusean, trenbidean edo automobil partekatuan.

- b) **Mantenu gastuetarako laguntza** EBk ematen duen laguntza indibiduala da, helmuga herrialdearen eta egonaldiaren iraupenaren arabera, gutxienez 2 eta gehienez 12 egun baliodunekoa. Egun balioabeak bost egun baino gehiagoko egonaldietarako bakarrik izan daitezke finantzarriak.

Gainera, Erasmus+ programak diruz lagundu ahal izango ditu jardura hasi aurreko joaneko bidaia egun bat eta jardura amaitu ondorengo itzulerako bidaia egun bat, betiere, frogagiriak aurkeztuta. Bidaia-datak (joan-etorria) eta jardura-datak (hasiera eta/edo amaiera) bat badatoz, aukera hori ez da kontuan hartuko. Bidaia ekologikorako laguntzaren baldintzak betetzen badira, Erasmus+ programak jardura hasi aurretiko bi egun eta burutu ondorengo bi egun finantzatu ahal izango ditu.



Helmuga herrialdeak	Taldea	Laguntza kopuruak eguneko
Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Islandia, Italia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak, Erresuma Batua (5 egunezkoa nahitaezkoa), Suedia	1. Taldea	120€
Txekia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Grezia, Letonia, Malta, Portugal	2. Taldea	105€
Bulgaria, , Kroazia, , Hungaria, , Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia, Turkia	3. Taldea	90€

Laguntza gehigarriak: inklusiorako laguntza. Finantza-laguntza bat da (benetako kostuetan oinarritua), legez % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta duten (edo baliokidea, atzerriko parte-hartzaileen kasuan) edo mediku-ziurtagiri bidez behar bezala egiaztatutako arazo fisikoak, mentalak edo osasun-arazoak dituzten parte-hartzaileen kostu gehigarriak estaltzeko, bai eta programan ezarritako gainerako onargarritasun-irizpideak betetzeko ere.

Laguntza hau eskatzeko interesa duten parte-hartzaileek eskaera-inprimakian **(2. eranskina)** adierazi beharko dute, eta web-orri hau bisitatu beharko dute, non agertzen baitira baldintzak, diruz lagun daitezkeen gastuak, eskabide-prozedura eta abar: <https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/desgaitasunak-dituzten-ikasleen-premia-berezietarako-erasmus-bekak>

3.2. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren laguntza osagarria

Errektoreordetzak aurrekontuko 10.000€ gorde ditu SEPIEren dirulaguntzak osatzeko, 2025/26ko ohiko deialdietan esleitzen diren irakaskuntza eta prestakuntzako mugikortasunetarako. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 150€ jaso ahal izango ditu BAKARRIK bidaia-aseguruaren, ostatuaren eta helmugako erakundera joan-etorriko garraioaren kostuak aurkeztutako egiaztagirien arabera emandako SEPIE laguntza osoa gainditzeko badu eta erreserbatutako kreditua agortu arte.

- Ibilgailu pribatuen alokairua eta dietak ez dira gastu onargarritzat hartuko. Laguntza honetarako.
- Nahitaezkoa izango da aseguruaren, ostatuaren eta ostatu-tokitik unibertsitatara eta aireportura doan garraio publikoaren gastuen egiaztagiriak (eskaneatutak) aurkeztea eta **8. Eranskina** beteta bidaltzea.

Ezin da inolaz ere finantzaketa bikoitzik egon goian zehaztutako SEPIEren laguntzen bi kontzeptuen eta Errektoreordetzaren laguntza osagarriaren artean.



4. ESKAERA EGITEKO MODUA

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaerak indibidualak izango dira. **Pertsona batek eskaera bakarra egin ahal izango du.**

Eskaera egiteko erabiliko da erabaki honi erantsitako web orrian argitaratutako eredu normalizatua. Hutsak eta akatsak zuzentzeko epearen ondoren, ez dira aintzat hartuko osagabe jarraitzen duten eskaerak.

Nahitaezko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira::

- i. **Eskaera orria (2. eranskina)**, behar bezala beteta eta eskatzaileak eta eskatzailearen zentroko Nazioarteko Harremanen koordinatzaileak sinatuta. Eskatzailea koordinatzaile bera bada, bere nagusi hierarkikoari eskatu beharko dio sinadura.
- ii. **Mobility Agreement**: Harrera erakundeak sinatutako behin-behineko edo behin betiko lan programa (**3. eranskina**).
 - o Dokumentu horrek erakusten du harrera unibertsitateak egonaldia onartu duela. Aurreikusitako IRAKASKUNTZARAKO JARDUERAK jasoko ditu. Ikerketa jarduerak ez dira diruz lagunduko.
 - o Dokumentua modu egokian bete eta sinatu beharko da, beharrezko eremu guztietako informazioa eta helmuga egonaldirako aurreikusitako datak barne (ikus datei buruzko oharra ebazpen honen 2.4 puntuan).
 - o Eskaera aurkezteko unean, eskatzaileak eta harrera-erakundeak sinatu behar dute dokumentu hori. Behin betiko ebazpenaren bidez mugikortasuna onartzen denean, UPV/EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak dokumentua sinatuko du.
 - o Sinadura eskaneatua onartuko da.
- iii. Interesdunak lan egiten duen **saileko zuzendariaren baimena** (4. eranskina).
- iv. **Hizkuntza egiaztatzea** (gutxienez B1) atzerriko hizkuntza batean. Xede-unibertsitateak hizkuntza espezifiko baten maila handiagoa eska dezake (1. eranskina). Hala bada, eskatzaileak egiaztasun hori aurkeztu beharko du.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da **2026ko otsailaren 1era arte** (egun hori barne), edo funtsak agortu arte. Eskabideak deialdi honen 2.4 puntuan ezarritako epeetara egokitu beharko dira.

Egun, indarrean dago UPV/EHUn bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia, 2024ko irailaren 11koa, eta bertan xedatutakoaren arabera, zenbait pertsona behartuta daude UPV/EHUrekin bitarteko elektronikoen bidez izatera harremanak. 5.f) artikuluan zehaztuta dago nola aurkeztu behar duten dokumentazioa hautapen prozesuetan parte hartu nahi dutenek, eta, hain zuzen ere, hau dio:

f) Dagozkien deialdietan ezartzen denaren arabera, Unibertsitateko lanpostuetarako hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituzte prozesu horiekin zerikusia duten tramite guztiak.



- Eskaria epe barruan aurkeztu beharko duzu UPV/EHUko egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus>).
- Egoitza elektronikoko prozeduren katalogoan ez badago jasota egin nahi duzun prozedura, eskaria erregistro elektronikoko orokorraren bidez egin beharko duzu, **“Eskatzen du”** atalean, **deialdiaren eta atal arduradunaren datuak zehaztuta: Transferentzia eta naziortekotze errektoreordetza, Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**. Horretarako, egoitza elektronikoan adierazita dauden identifikazio elektronikorako edozein sistema erabili ahal izango duzu, esaterako: BakQ, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionala erabili nahi baduzu, “Ziurtagiri digitalak” aukeraren bidez, lehenago hodeiko txartel birtual profesionala instalatuta izan beharko duzu eta saioa hasi.

Bestalde, behar bezala egiaztatutako egoeretan, eskaria eta agiriak erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUko bulegoetan aurkeztu ahal izango dituzu. Euskarri ez-elektronikoan aurkeztutako agiriak digitalizatu egingo dira, administrazio espediente elektronikoan sartzeko. Aurkezten diren jatorrizko dokumentuak itzuliko egingo dizkizute, baldin eta arauaren batek ez badu agintzen dokumentu horiek unibertsitateak zaindu beharrekoak direla edo ez bada nahitaezkoa objektuak edo dokumentuak digitalizatzeko aukerarik ematen ez duen berariazko euskarriren batean aurkeztu dela.

Eskaera presentzialki aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Irakaskuntzarako Erasmus+ Mugikortasun Deialdia
Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Ignacio M^a Barriola Zentroa
Elhuyar plaza 1
20018 Donostia

4.3. Eskaera zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen erregistro elektronikokoaren bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, 4.2 puntuan adierazitako baldintzetan.



5. HAUTAPEN PROZEDURA

5.1 Ebaluazio eta hautaketa-irizpideak

Hautapen Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzu burua eta teknikari bat.

Soilik ebaluatuko dira behar bezala aurkeztutako eskaerak, harrera erakundeak onartutako lan programa bat dutenak, betiere egokiak badira eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

Eskaera kopurua gehiegizkoa bada deialdirako funtsetarako, irizpide hauen arabera baloratuko dira:

1. Lehentasuna izango dute "Enlight" Europako Aliantzako unibertsitateetan egonaldiak egiteko eskaerak.
2. Bigarrenik, kontuan hartuko dira irakaskuntza helburua duten Erasmus+ programako mugikortasunetan lehen aldiz parte hartzeko eskaerak. Lehenetsi egingo dira deialdi hau argitaratzen den datan hitzarmen bidez lotuta dauden unibertsitateetarako eginiko eskaerak.
3. Hirugarrenik, kontuan izango dira azken bost ikasturteetan Erasmus+ programan irakaskuntza mugikortasun gutxien egin dituzten pertsonen eskaerak. Lehenetsi egingo dira deialdi hau argitaratzen den datan hitzarmen bidez lotuta dauden unibertsitateetarako eginiko eskaerak.²
4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango dute atzerriko hizkuntzan gaitasun handiagoa ziurtatuko duten eskaerak eta, zehazkiago, gaitasun hori lan plana garatuko den hizkuntzan ziurtatuko dutenak.
5. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da atzerriko bigarren hizkuntza batean maila altuagoko ziurtagiria duen pertsonarentzat (B1 gutxienez).
6. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da UPV/EHUn lanean egun gehiago eman dituen eskatzailearentzat. Kasu horretan, bulegoak datu hori eskatuko die soil-soilik berdinketa goera horretan dauden eskatzaileei.

Arau orokor gisa, **gehienez bi irakasle-ikertzailek egin ahal izango dute egonaldi bat leku berean eta aldi berean**. Arau hori betetzeko aplikatuko dira aurretik aipatu diren balorazio eta hautapen irizpideak. Salbuespenak justifikatu egin beharko dira, nazioartekotze arrazoi estrategikoengatik, inplikaturako zentroetako Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileek idatzitako aldeko txosten baten bidez edo Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren oniritziaren bidez.

² 2020/2021. ikasturtetik aurrera.



Hautaketa Batzordeak behin-behineko ebazpenak onartuko ditu, deialdi honen 2.4 puntuko egutegian ezarritako epeetan jasotako eskabide osoen balorazioarekin, hautagarritasun-baldintzak betetzen direla eta eskatutako modalitaterako funtsak erabilgarri daudela egiaztatu ondoren.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, Nazioarteko Harremanen web orrian argitaratzeko aginduko du onartutako mugikortasunen zerrenda, atzera botatakoena eta erreserban gelditu direnena.

5.2 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Behin plaza adjudikatuta, 10 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna onartzeko (6. eranskina) edo hari uko egiteko (7. eranskina), nazioartekoak.staff@ehu.eus-ra bidaliz.

Interesdunak ez baditu 6. eranskina eta 7. eranskina ezarritako epean aurkezten, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Hautatu ez diren pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean, eta uko egiteren bat gertatuko balitz, mezu elektronikoko bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrenda horretako hurrenkera.

6. PARTE HARTZEKO KONPROMISUAK

Deialdian hautatutako pertsonen konpromiso hauek hartuko dituzte::

6.1. Egonaldiaren aurretik

Dokumentazio hau nazioartekoak.staff@ehu.eus helbidera bidaltzea egonaldia hasi baino hamabost (15) egun lehenago gutxienez:

- i. **Mobility Agreement.** Harrera erakundeak sinatutako **behin betiko** lan programa (**3. eranskina**), aurretik bidalitakoaren ezberdina bada.
- ii. Hegazkinaren edo aukeratu den garraioaren **txartelaren kopia**.
- iii. **Bidaia aseguruia kontratatatu izanaren frogagiria**, estalduren eta ordainketaren deskribapena jasoko duena.
 - o Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaia laguntza aseguruia izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatik edo istripuagatik, erantzukizun zibilagatik, aberriratzegatik eta osasun-lekualdatzegatik laguntza mediko eta farmazeutikoaren estaldurak.
 - o Bidaia aseguruia kontratatzea Erasmus+ programak ezarritako betebeharrak *sine qua non* bat da, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk [IBILI BEREZI](#) aseguruia eskaintzen die irakasle-ikertzaileei.



Goian aipatutako dokumentazioa entregatzean, **Nazioarteko Harremanen Bulegoak parte-hartzaileari bidaliko dio:**

- i. **Dirulaguntza hitzarmena** sinatzeko. Sinadura elektronikoa nahitaezkoa da.
- ii. **Mobility Agreement (2. eranskina)**, EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak sinatua.

Ezinbestekoa da **Mobility Agreement** eta **dirulaguntzen hitzarmena** alderdi guztiek sinatuta egotea mugikortasuna egin AURRETIK. Bestela, mugikortasuna ez da finantzatuko.

Lineako hizkuntza-laguntza (OLS).

Europako Batzordeak Erasmus+ mugikortasunetan parte hartzen duten pertsonen eskura jartzen du tresna hau lineako hizkuntza-laguntza eskaintzeko. OLS plataforman eskaintzen den lineako hizkuntza-laguntza mugikortasunaren hasieran hizkuntza-gaitasunen hautazko ebaluazioa eta mugikortasunaren aurretik edo bitartean egiteko aukerako ikastaroa da. Informazio gehiagorako: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/sareko-laguntza-linguistikoa>

6.2. Egonaldiaren ondoren

Likidazioa egiteko, honako hauek aurkeztu beharko dira nazioartekoak.staff@ehu.eus helbidean, egonaldia egin eta hilabeteko epean:

- i. **EU GALDETEGIAREN PDF kopia** (EU Survey), online beteko dena galdetegia betetzeko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Galdetegia betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak.
- ii. **Egonaldiaren ziurtagiria**, UPV/EHUren formatuan edo informazio bera jasoko duen harrera erakundearen beste formatu batean. Benetako jarduera egunak adieraziko dira, kontuan izanik ziurtagiriaren datak izan behar duela egonaldiaren finantzaketa dataren berdina edo ondorengoa. Ziurtagiria originala izango da eta ez du izango ez zirriborrorik ez zuzenketarik, eta harrera erakundearen dagokion unitatearen zuzendaritzaren sinadura eta zigilua izango ditu.
- iii. **Egonaldiaren amaierako online txostena (5. eranskina)**, esperientziaren balorazioa jasoko duena.
- iv. **Mugikortasuna egin izanaren egiaztagiria**: posta elektronikoz eskaneatuta bidaliko dira (hegazkineko bidaietarako hegazkineratze-txartelak, erabilitako garraiobideen txartelak, fakturak eta abar).
- v. **Aukerakoa: Errektoreordetzaren laguntza gehigarriaren likidazioa** (8. eranskina), egindako gastu hautagarrien egiaztagiriekin batera, 3.2 puntuan adierazitakoak.

7. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Bi (2) zatitan ordainduko da:

1. Egonaldia baino lehen: Europako laguntzaren % 70 ordainduko da, eta



2. Egonaldiaren ondoren: kitapenari dagokion zatia.

Bi ordainketen tramiteak hasteko, ezinbestekoa izango da dagokion dokumentazioa **(6.1 eta 6.2 atalak)** helbide honetara bidaltzea:

nazioartekoak.staff@ehu.eus

Formakuntzarako Erasmus+ Mugikortasun Deialdia

Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa

Ignacio M^a Barriola Zentroa

Elhuyar plaza 1

20018 Donostia

8. ALDAKETAK ETA UKO EGITEA

8.1 Aldaketak onartutako mugikortasun-baldintzetan

Ez da aldaketarik onartuko esleitutako helmuga erakundean. Onartutako mugikortasun daten aldaketak bidaia-data baino gutxienez hamabost (15) egun lehenago jakinarazi beharko dira, betiere dagokion ebazpenaren denbora-tarteari eutsiz, eta Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak baliozkotu beharko ditu.

- **Jarduera eta/edo bidaia-datak aldatzea:** egonaldiak baimendutako egunetan egin beharko dira. Aurreikusitako datei eragiten dien edozein aldaketa posta elektronikoz jakinarazi beharko zaio nazioartekoak.staff@ehu.eus helbideari, gutxienez mugikortasuna egiteko baimendutako hasiera-data baino hamabost (15) egun lehenago. Aldaketak Nazioarteko Harremanen Bulegoak onartu behar ditu.

Aldaketa horiek zuzenean eragiten diote mugikortasunaren finantzaketari eusten dion dokumentazioari (**Mobility Agreement eta Dirulaguntza Hitzarmena**), eta Erasmus+ programaren Agentzia Nazionalak edozein unetan eska dezake. Beraz, ezin izango da dokumentu horietan datu okerrik duen mugikortasunik egin, eta ezin izango dira aldatu behin mugikortasuna hasita.

8.2 Uko egitea

Adjudikatu den plaza bati uko egitea formalizatu egin beharko da Erregistro Elektronikokoaren bidez (7. eranskina).UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak (IRI) helmugako ikastegira bertaratu beharko dira ezarritako datan, eta ez badira agertzen, mugikortasunari uko egiten diola izango da. Egoera horren berri berehala eman beharko da Erregistro Elektronikokoaren bidez; izan ere, hori egin ezean, irakaskuntza mugikortasunerako hurrengo deialdiko hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Mugikortasuna bere borondatez uzten bada, behin hasiz gero, Errektoreordetzari jakinarazi beharko zaio Erregistro Elektronikokoaren bidez, haren egoera erregularizatzeko. Utzi izana ez bada jakinarazten eta dirulaguntza jasotzen bada, fede txarrez jokatu dela ulertuko da. Nolanahi ere, baimenik gabe mugikortasuna uzten duten irakasle eta ikertzaileek (IRI) jasotako laguntzak itzuli beharko dituzte.



9. MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA

Mugikortasuna amaitu ondoren, errekonizimendu-ziurtagiri bat entregatuko dugu, dagozkion ondorioak izan ditzaten (adibidez, Docentiaz bidez baloratzeko).

10. EZ-BETETZEAK ETA ITZULKETAK

Deialdiaren oinarriak edo epeak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatu badira, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da emandako dirulaguntza, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsonen eta harrera unibertsitateei, egonaldiak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzen bat betetzen ez badute, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorritik abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

11. ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordeari, COARD/EISBari hilaibeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein ere erabil dezake.

Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu denetik 3 hilabete igaro eta ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsitatu joko da administrazioaren isiltasunagatik, eta administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.



Leioa, 2025eko ekainaren 25a.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea



ERANSKINEN ZERRENDAA

- | | |
|--------------|---|
| 1. eranskina | IRAKASKUNTZA mugikortasunerako plazak dituzten hitzarmenen zerrenda |
| 2. eranskina | Eskaera orria |
| 3. eranskina | Mobility Agreement for Teaching |
| 4. eranskina | Eskaera egiteko baimena |
| 5. eranskina | Egonaldiaren amaierako txostena |
| 6. eranskina | Plaza onartzeko inprimakia |
| 7. eranskina | Plazari uko egiteko inprimakia |
| 8. eranskina | Egonaldiaren ziurtagiria |
| 9. eranskina | Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren laguntza osagarria eskatzea |